# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 1343

*191/2020 EBAZPENA, otsailaren 11koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, M.ª Luisa Juárez Veganzones andreari Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Lekeitioko Lehen Mailako Arretako unitate-buru lanpostuaren eginkizunen esleipena errebokatzeko dena.*

306/2000 Ebazpenaren bidez, M.ª Luisa Juarez Veganzones andrea izendatu zen Lekeitioko Lehen Mailako Arretako unitate-buru Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESIan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusiak

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– M.ª Luisa Juárez Veganzones andreari Lekeitioko Lehen Mailako Arretako unitate-buru lanpostuari dagozkion eginkizunak esleitu izana errebokatzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko ESIan; eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2020ko martxoaren 1ean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakao, 2020ko otsailaren 11.

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA.